



**2022KO APIRILAREN 4KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko apirilaren lauan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak eguneko gai zerrendan ez dagoen puntu bat presazko izaeraz sartzea planteatu du, Haurtzaingegia eta Parrokiaren arteko oinezko zubiaren lanen esleipena. Esan du lehen sailkatuak aurkeztu beharreko dokumentazio hain azkar aurkeztuko zuenik ez zela uste, baina dokumentazioa aurkeztu duela. Tokiko Gobernu Batzarrak onartu egin du gaia eguneko gai zerrendan sartzea.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 14 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA BI euro ETA BERROGEITA HAMAIKA zentimo (64.842,51 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEA BURUTZEKO LANEI DAGOKION OBRA-ZUZENDARITZAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Joxemiel Barandiaran kiroldedia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeari dagokion obra-zuzendaritzako zerbitzuen kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 24an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, proposamen bakarra aurkeztu zen.

Aurkeztutako enpresa honako hau da:

1.- JOVINO MARTINEZ SIERRA

Aurkeztutako enpresa onartua izan zen.

Balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa aztertu ondoren, puntuazio hau lortu dute aurkeztutako enpresek:

ENPRESAK	Egikaritze-Proiektua eta obraren ezagutza <i>(25 puntu)</i>	Obrako eraginak <i>(15 puntu)</i>	Lan metodologia , <i>(9 puntu)</i>	GUZTIRA <i>(49 puntu)</i>
JOVINO MARTINEZ SIERRA	25	7,5	9	41,5

Proposamen ekonomikoa eta bere puntuazioak hauek izan dira:

ENPRESAK	Prezioa		Azken dokumentuen idazketan epearen murrizketa		GUZTIRA <i>(51 puntu)</i>
	Zenbatekoa	Puntuak <i>(49 puntu)</i>	Zenbat	Puntuak <i>(2 puntu)</i>	
JOVINO MARTINEZ SIERRA	138.260,00€	49,00	2 aste	2	51,00

Beraz aurkeztutako enpresaren puntuazioa guztira hau izan da:

ENPRESAK	Balio judizio baten araberakoak	Irizpide automatikoen araberakoak	GUZTIRA
	Puntuak	Puntuak	Puntuak
JOVINO MARTINEZ SIERRA	41,50	51,00	92,50

Ondorioz, eta lehen sailkatua Jovino Martinez Sierra izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatuaren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

Jovino Martinez Sierrak fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak Jovino Martinez Sierraren aldeko esleipen proposamena egin du.

LAZKAOKO Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du beraiek abstenitu egingo direla.

UDALA

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako boturik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu) Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanek obra zuzendaritza Jovino Martinez Sierrari esleitzea erabaki du, EHUN ETA



HOGEITA HEMEZORTZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI euro (138.260,00 €) gehi BEZari dagokion HOGEITA BEDERATZI MILA ETA HOGEITA HAMALAU euro ETA HIRUROGEI zentimo (29.034,60 €)ko prezioan.

IV.- IKASTOLA ETA ELIZA ARTEAN AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN OINEZKOENTZAKO ZUBIA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Agauntza errekan, parrokia ondoan, oinezkoen pasabidea egiteko lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 31n eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 3 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

1. Construcciones Echaide S.A.
2. Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.
3. Diez y Compañía S.A.

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa aztertu ondoren, puntuazio hau lortu dute aurkeztutako enpresek:

ENPRESAK	Laneko programa eta obra plana (15 puntu)	GUZTIRA (15 puntu)
CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.	10	10
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	15	15
DIEZ Y COMPAÑIA S.L.	15	15

Proposamen ekonomikoak hauek izan dira:

ENPRESAK	Prezioa	Bermea Zenbat urte
	Zenbatekoa	
CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.	234.582,93€	5 urte
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	295.955,99€	5 urte
DIEZ Y COMPAÑIA S.A.	295.937,18€	5 urte



Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak aztertu ondoren, Construcciones Echaide S.A. ren eskaintza neurrigabea edo anormala izan zitekeela ondorioztatu zen eta beraz kasu hauetarako legeak aurreikusten duen prozedura jarraituz justifikatu zezala eskatu zitzaion.

Horretarako emandako epean Construcciones Echaide S.A. k erantzun zuen eskaintza aurkeztu zuenean justifikazioa aurkeztea posible baldin bazen ere, baliabideen prezio igoerak ezinezko egiten duela gaur egun justifikazio hori.

Beraz onartutako enpresen proposamen ekonomikoak eta beraien puntuazioak honako hauek izan dira:

ENPRESAK	Prezioa		Bermea		GUZTIRA (85 puntu)
	Euroak	Puntuak (75 puntu)	Urteak	Puntuak (10 puntu)	
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	295.955,99 €	74,99	5 urte	10	84,99
DIEZ Y COMPAÑIA S.A.	295.937,18 €	75	5 urte	10	85

Beraz aurkeztutako enpresen puntuazioa guztira hau izan da:

ENPRESAK	Balio judizio baten arabekoak	Irizpide automatikoen arabekoak	GUZTIRA
	Puntuak	Puntuak	Puntuak
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	15	84,99	99,99
DIEZ Y COMPAÑIA S.A.	15	85	100

Ondorioz, eta lehen sailkatua Diez y Compañia S.A. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

Diez y Compañia S.A. k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak Diez y Compañia S.A. ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du beraiek abstenitu egingo direla.

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako boturik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu) Agauntza errekan, parrokia ondoan, oinezkoen pasabidea egiteko lanak Diez y Compañia S.A. ri esleitzea erabaki du, BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA BIDERATZIEHUN ETA HOGETA HAMAZAZPI euro ETA HEMEZORTZI zentimo (295.937,18



LAZKAOKO
UDALAK



€) gehi BEZari dagokion HIRUROGEITA BI MILA EHUN ETA BERROGEITA SEI euro ETA LAUROGEITA BAT zentimo (62.146,81 €)ko prezioan.

V.- GOIMEN ELKARTEARI 2022KO UDAL EKARPENA.-

GOIMEN Elkarteak horretarako bidalitako idatzi bidez, 2022ko udal ekarpenaren eskaera egin du.

Idatzi horretan esaten du GOIMEN Elkarteko Gobernu Batzordeak, 2021eko azaroaren 18an egindako bileran 2022 urteko udal kuota proposamena onartu zela eta ekarpenaren zenbatekoa azken urteetakoaren berdina izatea adostu zela.

Hori horrela Lazkaoko Udalari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 8.141,97 € da.

Honen aurrean, tokiko gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, GOIMENi 2022ko udal ekarpen hau onartu egin da.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzorde buruak tokiko gobernu batzordera bidalitako proposamenaren aurrean, tokiko gobernu batzarrak, aho batez, aurtengo Lazkaomendiko festen antolaketarako LAU MILA euroko (4.000 €) dirulaguntza ematea onartu du. Diru zenbateko hau festen antolatzaileak diren Olatz Intsausti eta Amaia Otaño emango zaie.

Une honetan Aitor Altuna Oiarbide zinegotziak bilkuratik alde egin du.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Lelo lehiaketa.-

Euskararen erabilera sustatzeko antolatutako lelo lehiaketaren irabazleari 100 €ko saria ematea. Irabazlean bi lagun izan direnez, saria bien artean banatuko da, erdi bana.

Euskara ikasten ari direnei.-

2021/2022 ikasturtean euskara ikasten hasi diren ikasleei dirulaguntzaren 2. zatia egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra da eta emango zaiona 560 €.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2022ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VIII.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kiroletako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkao Kirol Elkartearen izenean Adrian Gastesiri Jubenil eta Kadete mailako futboleko II. Torneoaren antolakuntzarako 755 €ko dirulaguntza ematea erabaki du.

Ordainketa 481.01.341.00 partidatik egingo da.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

